

**EUSKARAZ IKASTEN:
AXULARREN ETA ORIXEREN EUSKARARI
OHAR BATZUK**

0. Beti esan dugu, hil arte euskaraz ikasi behar dugula. Modu askotara ikas liteke. Horietako bat idazle onen lanak irakurriz. Axular eta Orixe ditugu maisu handi.

Eta egia esan, Orixe maisu handi bada, Axular handiago. Axularren denboran euskara indar betean zegoen, Orixeren garaian baino hedatuago, eta artean erdararen eragina ere ez zen horren nabarmena.

Ezin uka, ordea, Orixe euskara kontuan ikasiago zela, Axular baino. Eta bere lana ugariago izan zen.

Halere Axularrekin Orixerekin baino askoz gehiago ikas liteke.

Orixeren lanak irakurri ditut eta oso onuragarri izan zaizkit. GEROren aberastasuna, baina, harritzeko modukoa da. Nik lerroz lerro irakurri eta esaldi bikainak azpimarratuak ditut. GERO osoa disketetan sartua dut eta maiz entzuten dut, euskara aberasteko.

Axularrek lexikoaren aberastasun ugaria izateaz gainera, joskera bikaina darabil. Hementxe datza, besteak beste, Mo-

gelekin duen alde handia. Mogelen euskara oso txalogarria izan arren, batzuetan joskera traketsa da, gaztelaniaren kalkoa.

1. AXULARREN euskarari ohar batzuk

Axularren euskara horren bikaina izan arren, badira alderdi batzuk komentarioak merezi dituztenak. Laburzki azalduko ditugu hemen.

1.1. Erakusleak

Erakusleetan (deiktikoetan) ez ditu batzuetan *-ak/-ok* bereizten.

Adibide bat: “Zoazte maradikatuak, su eternalera”.

Gaizki dagoenik ezin esan baina Mendarotik hasi eta Zea-nuriraino oso ondo esango lukete:

“Zoazte madarikatuok ...”.

Urrutikoei hitz eginez, ordea:

“Madarikatuak Txinan daude”.

Hau da, bizkaieraz mintzo den toki guztietan, *ok* erakuslea hurbileko mintzakideentzat erabiltzen da. Eta *ak* urrun daudentzat. Sermoi baten bizkaieraz horrela esango lukete:

“Anai maiteok, gaurko ebanjelioan ...”.

Eta beste kasuan:

“Gure anai maiteak Ameriketean daude artzain”.

Molde berean Bizkaiko zenbait tokitan “Han bertan” eta “Hor bertan” bereizten dituzte. Bai eta “aurten” eta “aurton”, “gauean” eta “gaueon”...

Eta eskutitz baten honelaxe esango du: “Adiskide maite *ho-ri*”, adiskidea hurbilean balu bezala. Ez du sekula esango “Adiskide maitea”. “Adiskide maitea Ameriketean da”.

Axularren ohoretan, ordea, beste askotan erakusleak zoragarri erabiltzen dituela esan behar:

“Orai bereon, presenteon” AX 34, “Orai lege herrion” Ax. 169, “Orai arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akabatzeon” AX 114.

1.2. Aski-asko

Axularren irakurlea pixka bat harri liteke *asko aski* esateko erabiltzen duela ikusita. Ez harri! Egungo egunean ere Iparraldean horrela mintzo dira. Gure “asko” adierazteko beraiek “anitz” esaten dute. Asko “aski” da horientzat.

1.3. Bat

“Bat” maiz sartzen du. Gaizki dagoenik ezin esan, baina hauxe esan dezakegu. Beste toki askotan baserritarrek esaldiok “bat” sartu gabe erabiltzen dituztela.

“Aize handi bat dabil” gaizki dagoenik ezin esan baina erdararen “hace *un* viento fuerte”ren usaina duela baietz liteke. Baserritarrek eskuarki “Haize handia dabil” esango lukete.

- ... aisia handi bat emanen diozu zeure buruari AX 351
- ... erran zuen... tristura handi batekin AX 254, 501 or.

1.4. Bera

Gehienetan oso ongi erabiltzen du, baina batzuetan ez ditu bereizten “bera” (lehengokoa, el mismo) eta “bera” (él mismo, en persona).

“galdegin zioen Lais berari” AX 254 [Honela behar luke: ... Laisi berari].

“Ezta antsia, ala probeari ala Jesu Kristo berari eman” 229, 451 or. ... [ongi (...) Jesu Kristo*ri* berari...].

“... manatu baituzen errege berari burua edeki ziazotela” AX 229, 451 or. [Behar luke: ... errege*ri* berari] 170, p. 340

“Galdegiten baitu Luzifer berari” AX 92 [.. Luzifer*ri* berari].

Adibide zuzena:

“..(...) zapataginarekin berarekin mintzo izan balitz bezala” AX 279

Herriak honelaxe bereizten du:

Amari seme zaharrak esan zion berri txarra. *Seme berak* esan zion berri ona ere (el mismo hijo, el de marras).

Amari seme zaharrenak esan zion berri txarra. Aitari ere *se-meak berak* (él mismo) esango ziola zin egin zuen.

1.5. Bere

Zenbait kasutan *bere* kendu izan balu, ez zuen ezertxo galduko.

“Hegalek badute *bere* karga” AX 320 (Hegalek badute pisurik).

Gaztelera eta batez ere ingelesez posesiboa euskaraz baino askoz sarrago erabiltzen da: “He wiped *his* face – I cut *my* finger – They finished *their* meal...”

Euskaraz *bere* *besteen* jazargoan dago eskuarki. Gaztelaniaz esango lukete: “Gorka se fumó *su* cigarrillo. Ello le llevó *su* tiempo”.

Euskaraz *bere* horiek sobran daude. “Gorkak zigarroa erre zuen eta horretarako denbora pixka bat behar izan zuen”.

Jazargoan erabiliko da *bere*: “Gorkak *bere* zigarroa erre zuen eta lagunarena gorde zuen”.

1.6. Gaztaro, gaztedi, gaztetasuna

Axularrek ez ditu bereizten: *zahartasuna eta zahartzarroa*, ez eta *gaztetasuna, gazteria eta gaztaroa*. *Zahartasuna* eta *gaztetasuna* bakarrik erabiltzen ditu. Egia esan, ez frantsesez eta ez espainolez ez dute bereizten. Gaztelaniaz “juventud” erabiltzen dute hirurontzat. Eta frantsesez “jeunesse”.

Egungo egunean ere Iparraldean ez dituzte bereizten. Eta ez dute *bizitza* erabiltzen. *Bizia* bakarrik erabiltzen dute. Iparraldean, ordea, oso ongi bereizten dituzte *berioa* eta *beriotza*. Guk Hegoaldean ez. *Herio* lexema galdu dugu.

1.7. Bezala

Bakan baina noiz behinka bezala sartzen du, gabe hobeki legokeen kasuetan. Erdararen eragin garbia da. Egungo egunean huts hau oso hedatu da idazleen eta mintzatzaileen artean.

Sarritan entzungo duzu: “Artzain *bezala* ibiltzen da mendian”. “Mediku *bezala* dago Azpeitian”.

Axularen adibideak

“Israeleko seme gathibu *bezala* bere azpian zedutzan hek 15 (... bere azpian gathibu zedutzan...).

etsai bezala ... bizitzen zara 117

1.8. Erdi

“debekatzen derautza erdi gauzak” AX 204.

Molde hau nik ez dut uste entzun dudarik inoiz zazpi probintziatiko baserrietan.

Baserritarrek eta laborariek honela bereizten dute:

“Sagarren erdiak ustel daude”. Hogei badira, hamar ustel daude; besteak ez.

“Sagarak erdi ustelak daude” (denak daude ustel, baina erabat ez).

1.9. Ergatiboa

Ergatiboa, pertsoez ari garenean, gehienetan $-k$ ren bidez egiten dugu. Iparraldean maiz erabilia izan da $-z$ moldea.

“predikariez... ikharatzen da” Ax 67

1.10. Ezen

Konpletibak, konsekutibak eta kausalak osatzeko “ezen” erabiltzea ez dago gaizki. Erdararen usaina aditzen zaio, ordea.

“Hain lakhet ezen ... gaizki aiphatzen baitzuten eskriba Fari-seoek” AX 352.

“Eta hanbat mintzo ziren ezen ... ihardetsi behar izaten baitzerauen” AX 352.

“Zuek diozue ezen bekhatorekin nabillala” AX 352 “ongi diozue.. zeren hala baita” AX 352

“Hala iakizue ezen...” AX 352.

1.11. Hizkuntza

Hemen zalantzatxo bat badut. Ez ote duen egin egungo egunean horren sarri egiten den hutsa.

Badirudi, gaztelaniaz eta frantsesez erabiltzen den moldea darabilela adibide honetan Axularrek.

Espainolez “hablar en..” esaten da eta frantsesez “parler en...”.

Euskaraz, ordea, “euskaraz, espainolez, frantsesez, txinoz...” hitz egitea da.

“bethi fin eta finko egoitea eta irautea, deitzen da gehien herrietan eta hizkuntzetan perseberatzea” AX 296.

Ez ote legoke hobeto *hizkuntzez?*

1.12. -ik/-la

1.12.1

Axularrek egungo egunean Euskal Herriko eskualde askotan bezala (Iparralde osoan) perpausa nagusia ezezkoa bada, ez du perpausa konpletiboan *-ik* ipintzen, *-la* baizik.

Bizkaian, ordea, Araban eta Gipuzkoko toki askotan ere *-ik* erabiltzen dute.

“Etorri de*la* uste dut”. “Ez dut uste etorri de*nik*”.

Izen sintagman bezala: Ogia jan dut. Ez dut ogiri*k* jan.

“eztuzu ez pensatu behar... bekhatua iraungitzen eta barkatzendue*la*” Hobeki: dueni*k*.

“Eta eztuzu ez pentsatu behar, ondokoetara utzteaz konplitzen duzula” AX 162. Zenbait tokitan : konplitzen duzun*ik*.

“Eta eztezazula ez pensa, ifernuko su hura, hemengo su hauk bezala izanen *dela*”. AX 372. Beste moldea: “.. su hauk bezala izanen *denik*”.

“.. hordi bat *dela* ihardesteaz, eztakusat irabazi handirik egiten *dela*”. Beste moldea: ... egiten *denik*.

1.12.2. Galdera perpausetan ere *-la* ikusten dugu. Ez lego-ke gaizki *-ik* moldea erabiltzea:

“Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauez balearen sabelean ibiliz gero, bizirik leihorrera itkiko *zela?*” AX 86.

Araban, Bizkaia osoan eta Gipuzkoan ez toki gutxitan honelaxe esango lukete: ... aterako *zenik?*

“Nork sinhetsi zukeien Israeleko semeak, itsas-bazterrean, hain herstura handian izan zirenak, Faraonen eskuetarik itzuriko *zirela?*”

Beste moldea: ... itzuriko *zirenik?*

1.13. - **ko**

Hiriaren izena ematen duenean batzutan *-ko* eransten dio.

Sintagma zuzena hauxe da: “Donostia (deritzan) hiria polita da” edo “Donostia hiria polita da”. “Donostiako hiria” erdararen kalkoa da. “La ville de San Sebastian”.

“Egun batez permititu zuen Jainkoak desegin zezaten bere etsaiek Jerusalemeko hiri eder famatu hura” AX 129 “Desegin zuten Kartagoko hiria” AX 18.

“Ez othe da arroxinarik edo atriakari Galaadteko hirian” AX 340.

“mehatxatu zuen Jainkoak Ninibeko hiria” AX 397.

1.14. **Nola**

Axularren zenbait molde, erdararen kalkoak izan arren, herriak ere erabiltzen du:

Nola kausala adierazteko darabil:

“Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida. (...)”.

Konparatibo moldetan ere bai:

“Zeren hala zahartzean nola gaztean”.

“Hain ongi eduki behar da kontua batz nola bertzeaz.

“hala onean nola gaiztoan”.

1.15. **Non**

Hemen berriz ere esan behar dugu. Axularrek konsektibak egiteko erabiltzen duen moldeak ongi dago. Galde liteke, ordea, ea ez ote duen erdararen eraginik.

Eta hain maiz kofesa ahal diteke eta hain ongi, non guztia pagaturik, hartzekodun ere gertha baititeke” AX 345.

Euskaraz beste molde bat entzun liteke baseritarren artean. Perpausa konsektiboa nagusi eginez.

Hartzekodun ere gertha liteke, maiz eta ongi kofesatuz gero.

Esaldi hau: “Hain ona zen, non guztiek maite zuten” baseritarrek jeneralean honela esango lukete: “Guztiek maite zuten, horren ona baitzen”. Edo “Guztiek maite zuten, oso ona zen eta”.

1.16. **Oraino**

“Etzen *oraino orduan*, orain den bezala, nehoi beregainki bere pekhatuen kofesatzeko manurik” Ax 338 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ongi bereizten dituzte *oraino* (oraindik) eta *artean*.

Iragan eta etorkizunerako *artean*:

“Ez zen *artean* lantegirik Euskal Herrian ...”

“Zu ezkontzen zarenean, *artean* ere haur hori txikia izango da”.

Oraino edo oraindik oraindirako bakarrik erabiltzen dute:

“Oraino, oraindik ez dugu ikusi”.

1.17. **Su**

Iparraldean ez dute guk bezala “su@tara” edo “sutatik”, molde mugatu gabe erabiltzen.

“sura egotziko dituzue AX “... sutik apartatzea” AX 198

1.18. **Zein**

Erlatibozko perpausak egiteko erabiltzen du Axularrek.

“Badira bisera batzuk, begi ordethaillu batzuk, zeinek gauzak diren baiño handiago, irudi arazitzen baitituzte”. AX 94

Gure egunotan molde hau bakantxo erabiltzen da. Gaizki dagoenik ezin esan.

Ia sekula ez diezu baserritarrei entzungo. “Zein”, “zeinek”, ... unibertsitatean ikasitako jendeak eta predikariek beren sermoietan erabiltzen dituzte erdarazko erlatibozko esaldien kalakoak egiteko.

Baserritarrek erdarazko erlatibozko perpausak moztu egiten dituzte. Esaldi laburrak erabiltzen dituzte eskuarki.

“Los padres que vinieron con los niños que habían estado en Granada con otros niños que jugaban a la pelota, volvieron contentos”.

“Gurasoak pozik itzuli ziren Granadan egon ziren haurrekin. Umeok pilotan jokatzen zuten beste umeekin egon ziren”.

1.19. **Zeren**

Kausalitatea adierazteko oso sarri erabiltzen du Axularrek. Herriak ere erabiltzen du. Gure artean *eze* oso entzuna da. Eta orain behin eta berriz adi liteke “es ke”. Dena dela, euskararen senari konjuntzioak azkenean ipintzea dagokio.

“Zeren illeak nahasiak eta izurtuak baitaude Ax 351 “Zeren hura baita ardi errebelatuaren edireitea AX 352.

“Zeren hau da bigarren erremedioa” AX 194.

Bukatzeko hauxe: euskaraz ongi hitz egin eta mintzatu nahi duenak Axularren GEROn harrobi ezin hobea du. Orri bakoitzean atera litzake harri bitxiak, lexikoa, esaldi bikainak, esapide mamitsuak eta atsotitz gogoetatsuak.

2. **ORIXEREN EUSKARARI OHAR BATZUK**

Orixeren euskarari goratzarre egiten ez ginateke aspertuko. Zinez, euskara bikaina, guztirakoa erabili zuen bere idazkietan.

Garai batez Euskal Filologiako ikasleekin haren lanak aztertzen genituen eta behin eta berriz goratzen genuen haren euskara.

Hemen ohartxo batzuk egin nahi nituzke. Beti gogoan izan ditut Flauberten hitzak: “Gauza bat mila modutara esan liteke. Mila horietarik bat da onena. Horixe erabili behar da”.

2.1. **Kontaketaren aldia**

“Jesusek esaten dio”. (Kanakano gertaera. Urte guztiko meza bezperak. 126 or.)

Gertakizunak kontatzerakoan euskaldunek bi modurata esaten dute: a. Jesusek esan zion b. Jesusek esan dio

2.2. **Eragin**

Ongi berezi behar dira *eragin* plus akusatibo (=sortu, sortarazi) eta *eragin* plus datibo (=erabili, higi arazi):

Eragin danbolinari/eragin danbolina

“Zeru ta lur batean eragin oi dituzun Jauna” (qui caelestia simus et terrena moderaris. Urte g. m. p. 125 or.)

Hobeto legoke: “Zeruari eta lurrari (*edo* Zeru-lurrei) eragiten diezun Jauna”.

“Zeru ta lur batean eragin oi dituzun”ek hauxe esan nahi du: Zeru-lurrak *eginarazi, sortarazi* dituela. Hemen, ordea, *moderarisek* “gobernatu, zuzendu” esan nahi du, hots, zeru-lurrei eragin.

2.3. **-taz**

“Oro arritzen ziran Jainkoaren agotik entzun itzetaz” Urte g. meza b. 131 or

Hobeki “entzun hitzez”. *Honetaz, horretaz, bartaz*

Zuzenak dira.

2.4. **Ipini**

“Jauna, aren buruan txirla-arrizko buruntza ipiñi *diozu*”. (Posuisti, Domine, in capite ejus coronam de lapide pretioso).

Nik honela itzuliko nuke:

“Jauna, hari buruan txirla-arrizko buruntza ipiñi *diozu*”

edo

“Jauna, aren buru gainean txirla-arrizko buruntza ipiñi *duzu*”.

2.5. Jarri-ezarri

Ez ditu bereizten jarri/ezarri. Jarri transitibotzat ere erabiltzen du. Egia esan, Gipuzkoako toki askotan horrela erabiltzen dute.

Nafarroatik hasi eta Iparralde osoan bikain bereizten dituzte: *jarri* intransitiboa eta *ezarri* transitiboa.

Zutik *jarri da*. Aulkia gela erdian *ezarri du*.

2.6. Jaitsi-eraiitsi

Ez du *eraiitsi* erabiltzen, “jetxi arazi” baizik. Beharbada hau idatzi zuenean ez zuen *eraiitsi* ezagutzen.

30 urtean Euskal Herriko zazpi probintzietan ibili ondoren, *eraiitsi* Azpeiti eta Errezilgo inguruetakako baserrietan bakarrik entzun dut. Hor bizi bizirik dago. Goierriko baserritarrek, adibidez, ez dutela ezagutzen esaten didate.

Azpeitin eta Errezilen, berriz, egunero erabiltzen dute: “eraxi” ahoskatzen dute. “Kantinak errira eraiitsi bear ditugu”. “Bellarra ganbaratik ikullura eratxi behar degu”.

“Ecce ego declinabo super eam quasi fluvium pacis”, honela itzultzen du Orixek:

“pakeibaia *jetxiaraziko* dut arengana”.

Azpciti-Errezilgo baserritarrek:

“pakeibaia eraiitsiko dut arengana”.

Eta ez ahaztu Zuberoako laborien ahotik entzungo duzula “eraiitsi”, gure “jaiitsi” adierazteko: “Goizean menditik behiti eraiitsi zen”.

Oharrok ez diote Orixeren maisutasunari ezertxo ere kentzen. Idazle handia izan zen, prosa alorrean ez ezik, olerki lanetan ere fruitu txit estimagarriak eman zituen.

OHARRA: Axularren atzetik datozen zenbakiak Luis Villasantek argitaratutako GEROren zenbakiak dira (Juan Flors, Editor, Barcelona, 1964).

Gotzon Garate.